

B

BARREN

Dendak bizirik

TOKIKOM



ELGOIBAR
SAN FRANZISKO

Azken etxebizitzak
%4ko BEZarekin

Etxebizitzak
trastelekuarekin

150.000 €-tik aurrera
+ BEZ

Bukatutako eraikina
Sukalde ekipatua

Orain BAI!



Informa zaitez konpromisorik gabe

943 74 44 67

GABILONDO
AGENCIA INMOBILIARIA 
C/ San Francisco 51, bajo.
Elgoibar

sukia
Zure etxean zaude.
Estás en tu casa.

www.sukia.com

Enplegua sortzea da lehentasuna

Gipuzkoako Foru Aldundiko eta Jaurlaritzako agintariei sarritan entzun diegu gure egoera ez dela estatuarena bezain larria. Gure egoera ez da herrialde batzuen bezain larria, baina bai beste batzuen baino larriagoa.

Langabeziari buruz hitz egiteko, eta ez beste gai batzuei buruz, adibidez zorpetze maila, 1995ean erkidegoko langabezia tasa estatuarena parekoa zen (%24). 2007an estatuaren langabezia %12koa zen, eta erkidegokoarena %6koa. Gaur egun, erkidegoko langabezia tasak estatuarekikoaren erdia izaten jarraitzen du.

Zeintzuk dira, estatuarekiko langabezi tasa berdina izatetik erdia izatera eraman gaituzten arrazoiak?

Laburbilduta: erantzukizuna, plangintza estrategikoa eta kudeaketa zuzena:

- Epe luzeko ikuspegi eta plangintza estrategikoa.
- Egitasmo zehatza.
- Lidergo gaitasuna.
- Kudeatzeko talde prestatua.
- Gizarte inplikatu.
- Konfiantza izatetik datorren jarrera baikorra.
- Lanerako gaitasuna eta eraginkortasuna.
- Kultura industrial.
- Hezkuntza oinarri duen gizartea.
- Kudeaketa tresna propioak, Kontzertu Ekonomikoa,... herriari nortasun propioa eta egokitutako baliabideak emango diotenak. Agirre, Garaikoetxea, Ardanza eta

Ibarretxe Lehendakariak defendatu dutena hain zuzen: Erabakitze Eskubidea.

k) Adostuz gidatu behar dugu gure ekonomia eta politika. Krisia gainditzeko, langabezia murrizteko, industriak eta zerbitzuak produktu eta eskaintza propioak izan ditzaten, etorkizunean ere krisi egoerei erantzun ahal izateko.

Herrialde txikiek aukeren arteko adostasunean eta epe luzeko ikuspegi eta plangintzan oinarritzen dute beraien indarra.

Nortasuna eta gaitasuna, gure herriko ekonomia gure kudeatzeko, erabaki eta neurriak gure beharretara egokitzeko. Horretan aritu gara eta arituko gara EAJ - PNV alderditik.

Alfredo Etxeberria



"Nire txanda" atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaitez gurekin harremanetan: 943 744 112 edo barren@elgoibarkoizarra.com

“Herrialde txikiek aukeren arteko adostasunean eta epe luzeko ikuspegi eta plangintzan oinarritzen dute beraien indarra”



Tertuliak

Izena emateko azken eguna: urriak 15

INFORMAZIOA:

Elgoibarko Izarra Kultur Elkarte
 Ubitarte, 4, behea
 943 741 626
 elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.com

ELGOIBARKO IZARRA
KULTUR ELKARTEA

Barren

Kalebarren plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Publizitatea: ☎ 943 744 112

E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARRE**nek ez du bere gain hartzen **NIRE TXANDA**, **ZOZOK BELEARI** eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitako enantzikunik.

KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi
KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea,
Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA
Ainara Argoitia PUBLIZITATEA Leire Rubio
MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz MAKETAREN
DISEINUA Jaione Unanue KOLABORATZAILEAK
Iñigo Lazkano, Anjel Bazterretxea, Andres
Alberdi, Angel Ugarteburu, Justo Arriola,
Arkaitz Irureta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai
Arieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jesus
Mari Makazaga, Jairo Berbel, Joanes
Rodriguez, Maialen Arnedo, Ainhoa
Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga,
Amaia Larrañaga INPRIMATEGIA Gertu Koop.
E. TIRADA 4.800 ale LEGE GORDAILUA SS-
1.038/92 ISSN 1139-1855

Argitaratzailea:




Laguntzaileak:



ELGOIBARKO LEKIA



MENDAKO UDALA



GUTUNAK



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enantzikunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Aski da!

Beste emakume elgoibartar bati eraso diotela jakin dugu aste honetan, eta hori eta horrelako gertaerak salatu nahi ditugu.

Orain astebete esaten genuenaren haritik garbi daukagu mota honetako gertakariak sistemaren arazo estrukturalen eta patriarkatuaren ondorio baino ez direla, eta hori horrela, denon ekinak baino ez du lortuko egoera aldatzea.

Erasotzaileei haginak erakusteko ordua iritsi da; haserre gaudela esan eta emakumeon kontrako erasoei horma sendo bat jarri behar diegu aurrean. Era berean, norberak bere esparruan, denon artean parekidetasunean oinarrituko diren harreman ereduak eraikitzeko garaia da. Denbora luzean ez dezagun arrazoirik izan *Aski da* dioten pankarten atzean berriz biltzeko.

Elgoibarko emakumeon asanblada ☞

OHARRA

Urriaren 12an, Pilarika Eguna, jai egingo dugu. Beraz, datorren asteko alea eguenean jasoko duzue, urriaren 11n. BARREn zerbait argitaratu nahi izanez gero (zorion agurrak eta merkatu txikiko iragarkiak barne), martitzen eguerdirako bidali beharko diguzue informazioa. Mila esker.



Anjel Ugarteburu

BARREN existitzen zenik ere ahaztuta, zeharo deskonektatuta harapatu nauk goizeon, Andres, oraindik oporren basoan (apropos) galduta.

- Noizko idatzi behar dugu, ba?

- Atzoko.

Basoan galduta dabilenaren antzekoa dok gaur orri honetara ekarriko dudun parabola. Oihanean eroritako hegazkineko bidaiariak itsas alderako bidea egin nahi juek, eta, zaurituak bere onera

etorri direnean, hasi dituk bidea egiten. Zeruko izarrak behar lituzkete gidari gauean, eta eguzkia egunez. Oihana trinkoa dok, ordea, eta han ez dok eguzki izpirik sartzen; haizerik are gutxiago, eta gau argietan ikusi ahal dituzten izar banakak jiteuzak gidari bakar.

- Kontua aurrera egitea dok- bota jok taldeko erabakitsuenak – Hemen geldi lotzen bagaituk, gureak egin jok.

- Norantz goazen jakitea ere ez legokek, ba, txarto- ihardetsi jotsak taldeko zuhurrak.

“Izarrak dituk gau argietan gidari bakar, baina ez gaittuek hezi gora begiratzen”

Sasiek eta zuhaitz nahasiek, ostera, ez juek norantza asmatzeko aukerarik ematen. Zeruko izarrak dituk, horrenbestez, gau argietan gidari bakar, baina, zoritxarrez, ez gaittuek hezi gora begiratzen, izarrek diotena ulertzen. Kontua dok, astebete basoan zehar aurrera egin ondoren, oihaneko soilgune batera iritsi direla galduok, eta, han, erdi-erdian dagoen zuhaitz luzera igo dela taldeko lirainena. Denak adi zuhaitz puntatik inguruari so dagoen mutilari.

- Bi berri; bata, ona, eta, bestea, txarra. Asko aurreratu joagu; baina okerreko bidean.

Ez egidak esan, Andres, gure gizartean gertatzen dena adierazteko, parabola egokia ez denik. Aurrerapenaren ontzian sartuta pozik eta harro gindoazan, baina gidariak ez jakixan izarretan irakurtzen.



Andres Alberdi

Angel, zirikatzailea eta aparta iruditu zaidak hire parabola. *Gidariak ez jakixan izarretan irakurtzen*, diok. Izarretan irakurtzen ez jakitea gaitz erdi lukek, baina. Nola jakin izarretan irakurtzen, ez badakite ahoko zuloan daukaten mundua eta jendea ikusten ere!

Kasualki, gaur bertan egokitu zaidak ikustea Raxoi eta gainerako autonomia-presidenteak telebistan. Hire parabolarekin gogoratu nauk noski, baina baita Udarregiren harako beste bertso haiekin ere: *Pentsatzen jarrita're / hau dek alper pila. ... Pobriak altxatzeko / a zer kuadrila!*

Bazekiat Zumaian habilela azken hilabete hauetan, eta, preseski, hire parabolaren harian doan Zumaia pasadizo batekin gogoratu nauk ezinbestean. Pasadizoa hire parabolaren parekoa duk.

“Gidari horiekin, laster, herri xeheak, ez ardorik, ez urik”

Dagoeneko, paseak hainbat urte. Uda parte zuan; atun-garaia, eta han zebiltzean arrantzan zumaiar arrantzale batzuk. Egundexen- te itsasoan eginda, hor zetoze zumaia-erok etxeko bandan, itsasontzian zuten ardo guztia ondo ahortuta, eta, jakina, haren irrika bizian, lehorrera noiz iritsiko berantetsita. Hura zoritxarra haiena, ordea! Marearen behean izaki, Zumaia portuan ezin sartu mareak gora egin arte! Kresalak itsatsirik gatz biziarekin, honela mintzatu zuan irudimentsuena: *Ura balego, ardoa edango, baina, urik ez dagoelako, ura edan behar.*

Ez egidak esan, Angel, gure gizartean gertatzen dena adierazteko, pasadizo hori ere egokia ez denik. Etxera bidean, ontziko patroia ondo patroigeldo, ganorabako, txepel eta ez gauza gertatu zitzaiean haiei. Guk ere, konfiantza eta uste on guztia gure *gidarien* eskuetan utziak geneuzkean, eta gidari horiek jakin ez itsas mareak gorabeherak izaten dituela! Martxa honetan, gidari horiekin, laster, herri xeheak, ez ardorik, ez urik.

I. URTEURRENA

JOSE MARI LARREA GARATE

2011ko urriaren 10ean hil zen.

Haren oroimenez I. urteurrenoko meza izango da, zapatuan, urriak 6, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokan.

Joango zaretenoi eskerrak alde zurretik.



“Elkarbizitza eta herritarren segurtasuna hobetzeko neurriak” indartu ditu Elgoibarko Udalak

Herritar guztien laguntza izatea espero du Udalak

Elkarbizitza eta herritarren segurtasuna hobetzeko” ezarrita zizuten neurriak indartuko ditu Elgoibarko Udalak, Ertzaintzarekin elkarlanean. Hartutako erabakien artean ondorengoak daude: batetik, Elgoibarko Udalak eta Ertzaintzak kontrola areagotuko dute, adingabeei ostalaritzako establezimenduetan eta saltokietan alkoholik saldu ez diezaieten. Era berean, ordenantza aldaturiko dutela jakinarazi dute, eta hala, establezimenduei zigorrak jarriko dizkiete, adingabeei, legez kanpo, alkohola saltzen badiete edo taberna edo lokal barruan egotea lagatzen badiete. Zigorren

arte, establezimenduak aldi baterako itxeko zigorra ere ezarri ahal izango du Udalak. Azkenik, Polizia gehiago jarriko dituzte kalean, eta baita zaintzarako baliabide tekniko gehiago ere.

Elgoibarko Udaleko ordezkariak adierazitakoaren arabera, neurri horiek ez dute emaitza onik emango, harik eta herritarrak honakoaz kontzientziatzen ez diren arte: “Ongi pasatu ahal izateko, ez zaiola elkarbizitza onari inolako kalterik egin behar”. Horrenbestez, Elgoibarko Udalak ezinbestekotzat jo du herritar guztien laguntza, elkarbizitza hobetzeko.

Iñaki Goirizelaia EHUko errektoreak eta Xabier Ortueta IMHko lehendakariak ingeniari-tza dualaren gradua aurkeztu dute

Euskal Herriko Unibertsitateko Iñaki Goirizelaia errektoreak eta Xabier Ortueta Makina Erremintaren Institutuko presidentek Prozesu eta Produktu Berrikuntzaren Ingeniaritza txandakako gradu berria aurkeztu zuten eguaztenean, Erreminta Makinaren Museoan. Espainiako sistema dualaren lehen gradua da, eta Ortuetak esandakoaren arabera, IMHrentzat pauso oso garrantzitsua da, eta hezkuntza sistemarentzat jauzi handia. Orain dela 16 urte jarri zuen martxan IMHk txandakako sistema, eta aurten EHUren eskaintzan sartu dute. Errektoreak esan zuen “une historikoa” dela hau, eta zorionak eman zizkion ikastetxeari egindako lanagatik.



Nafarroako konkistari buruzko hitzaldia eskaini du Joseba Asironen



Joseba Asironen hitzaldiarekin hasi zen eguaztenean *Nafarroa arragoa* egitasmoa. Elgoibarko Izarrak, Udalak, Morkaikok, Gazte Asanbladak eta Ongarrik antolatu dute egitasmo hau elkarlanean, elgoibartarrek Nafarroa hobeto ezagutu dezaten. Joseba Asironen Nafarroako konkista izan zuen hizpide eguaztenean. 500 urte pasatu dira Gaztelak Nafarroa konkistatu zuenetik, eta historiako gertakizun horri buruzko xehetasunak azaldu zituen. Herritar ugari batu ziren Kultur Etxean Asironen hitzaldia entzuteko.

Egitasmo honen barruan, Kike Diez de Ultzurrunek euskarak Nafarroan bizi duen egoerari buruzko hitzaldia eskainiko du urriaren 10ean. Hitzaldia 19:00etan hasiko da, Kultur Etxean.

Berbia **Hauteskunde kanpaina**

Bart hasi da Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeetarako kanpaina. Hala, datozen egunetan Elgoibarrera ere etorriko dira alderdi politikoetako ordezkariak bo-toak eskatzera. Gaur arratsaldean, esate baterako, EH Bilduk ekitaldia egingo du, Kalegoen plazan. 18:30ean hasiko da, eta Pello Urizar Bilduko bozeramaileak eta Xabier Isasi Gipuzkoako zerrendaburuak hartuko dute parte. Elgoibarko EH Bilduko kideek herritarrei dei egin diete ekitaldian parte hartzera, EH Bilduren programa bertatik bertara ezagutzeko. Bestalde, bihar, zapatua, Donostiako Atano III. pilotalekuan egingo den ekitaldira joateko autobusa antolatu dute. 16:30ean irtengo da, King-Kongeko autobus geltokitik. Interesatuak Iturri eta Jai Alai tabernetan eman dezakete izena.

EAJko ordezkariak, bestalde, urriaren 13an etorriko dira Elgoibarrera. Markel Olanok hitzaldia eskainiko du Batzokian 18:30ean hasita, eta ondoren, triki-poteoa egingo dute herriko kaleetan. Gauerako afaria antolatu dute. Interesatuak 675 718 466 telefonoan eman dezakete izena.

Asteko irudia **Genero indarkeria**


Eibarko Ertzain etxeko agenteek 22 urteko gizonetzko bat atxilotu zuten astelehenean Elgoibarren, bikotekideari eraso eta heriotza mehatxuak egitea leporatuta. Ertzaintzak 15:00ak aldera jaso zuen emakumearen deia, eta bikotearen bizilekuan bertan atxilotu zuten gizonetzkoa. Ustez, eztabaida bat izan ostean eraso zion gizonetzkoak emakumeari, eta hil egingo zuela mehatxu egin zion ondoren. Atxilotua epailearen esku dagoela jakinarazi du Herrizaingo Sailak.

Ustezko eraso horren ostean, Elgoibarko Emakumeen Asanbladak elkarretaratzera deitu zituen elgoibartarrak. Eguaztenean egin zen elkarretaratzea, Kalegoen plazan. Era berean, Elgoibarko Udalak adierazpen publiko bat egin zuen ustezko erasoak salatuz. Idatzi horretan emakumeen kontrako indarkeria salatu eta biktimei behar duten arreta eta babesa emateko balibideak jartzeko konpromisoa agertu du.



San Antolin jaietako zozketa

Bi sari zozketatu dituzte San Antolin jaietan, eta dagoeneko agertu dira irabazleak. Kanariar uharteetara bi lagunentzako bidaiak izan da lehen saria, eta eibartar bati egokitu zaio. Janariz eta edariz beteriko karretila, bestalde, Paula Heras elgoibartarrak jaso du. Bestalde, Kaxeta San Antolin Elkarteak eskerrak eman dizkiete aurten ere Arriaga auzoko jaiak antolatzen lagundu dietenei, eta baita jaietan goatzera joan zirenei ere.




San Migel jaietako errifaren zozketa

San Migel jaietako errifaren zenbaki saritua ondorengoa da: 0413. Irabazleak zekorra edo zekorraren balioa jasoko du dirutan: 1.300 euro. Saridunak hamabost eguneko epea dauka saria jasotzeko. Ordezko zenbakia 5543 izan da.

Bi irteera, Arbasoen Deia egitasmoaren barruan

Debegesak eta Debanaturak antolatuta, Dolmenen Ibilbidea egingo dute urriaren 12an, eta Burdinolen Ibilbidea urriaren 14an. Izena emateko 943 191 172 telefonora deitu daiteke.

nestorbasterretxea



Hasi da atzera kontaketa. Abenduaren 6tik 9ra egingo da Durangoko Azoka, eta martitzenean aurkeztu zuten kartela Durangon. Aurten Nestor Basterretxeak (Bermeo, 1924) egin du, enkarguz, eta “ohorea” izan dela adierazi du, Tokikomeko bazkide diren herri aldizkariei eskainitako elkarrizketan. Euskararen eta euskarazko kulturaren erakustokia da Durangoko Azoka, eta Elgoibarko idazle eta musikarien lanak ere izango diran. Gerturatu ahala joango gara haien berri ematen.

TOKIKOM

Zein izan da kartela sortzeko orduan buruan erabili duzun ideia?

Gure herriko sorkuntzaren azken lanak ezaugaraztea helburu duen azokan gaur eguna eta etorkizuna daudela erakustea. Azken aldi lantzen ari naizen teknika baliatzea pentsatu dut. Dagoeneko erabiltzen nabilen teknika da, baina gehiago sakontzea gura dut. Zenbat denbora daramazu teknika hori lantzen?

Sei bat hilabete eman ditut era honetan lan egiten. Telebista matxuratzen denean pantailako koloreei argazkiak egiten dizkiet. Izan ere, kolore aberastasun ikaragarria dago horretan. Argazkia handitu eta *collage* bat egiten dut, eta koloreak espazio geometrikotan sartzen ditut ondoren.

Lehenago ere sortu izan duzu kartel bat baino gehiago.

Bai, baina aurretik egin izan ditudan kartel horietan teknika ez zen bereziki berritzailea:

“Denboran iraun dezaten eginiko obrak dira euskaldunarenak”

collage-a edo marrazkia erabiltzen nuen. Euskal antzerki taldeen, liburuen eta diskoen azalerako ilustrazioak egin izan ditut. Azkenen egin dudana Bedaxagar kantariaren diskoaren azala da. Asko miresten ditut poeta herrikoiak.

Kasu honetan teknika bera gehiago lantzeko aukera izan duzu?

Bai, eta horregatik izan da niretzat berritzailea. Estetika bereko dozena bat lan egin ditut, eta gehien gustatu zaidana aukeratu dut.

Esan duzunez, urteak dira Durangoko Azokan egon zinela.

Bai, bi aldiz egona naiz, eta benetan harritu ninduen azokaren dimentsioak: jende kopurua, jendeak azokarekiko duen lotura... Horrek guztiak asko harritu eta poztu ninduen. Ez nuen sekula pentsatu egunen batean

“Arinkeriaren, fribolitatearen, etsaia izan naiz beti”

azokako kartela egingo nuenik eta, horregatik, benetan ohorea da.

Zure bizitzako lanari buruzko erakusketa antologikoa prestatzen ari zara. Lanpetuta?

Bai, horretan dihardut, Bilboko Arte Ederren Museoa erakusketa antologiko bat

prestatzen. Peio Agirre izeneko komisiarioagaz nabil lanean. Poz-pozik nago bere izaera emango diolako erakusketari. Zaila da ukitu ditudan arlo guztiak jaso gura ditugulako: zinema, eskultura, margogintza, altzairuak... Arkitektoa izan nahi nuen, baina Gerra Zibilak eta Mundu Gerrak ezinezko egin zidaten. Nire arloan gizon kultua izatea nahi izan dut beti, eta horregatik jardun nuen arlo horietan guztietan.

Bizitza osoa eman duzu sortzen.

Beti jardun dut lana seriotasun eta interes handiagaz egiten. Arinkeriaren, fribolitatearen, etsaia izan naiz. Jarrera serioa da euskalduna, denboran iraun dezaten eginiako obrak dira euskaldunarenak, lekuko izateko eginiakoak. Gure sorburua egitura arkitektoniko irmoa dela uste dut.

Teknika berriarekin egindako kartel “moderno”



Nestor Basterretxea eta Aiert Goenaga Durangoko Azokaren zuzendaria kartelaren aurkezpenean.

Nestor Basterretxea, bost hamarkadatan artearen adierazpide anitzak jorratu dituen artista, eta Aiert Goenaga Durangoko Azokaren zuzendaria egon ziren martitzenean 2012ko Durangoko Liburu eta Disko Azokaren kartelaren aurkezpenean. Martitzenean erakutsi zuten, lehenengoz, Azoka iragarriko duen kartela.

Basterretxea azaldu duenez, telebista pantaila matxuratzen denean agertzen den “kolore aberastasun ikaragarria” da karteletako irudiaren oinarria. Azken aldiaren pantailako forma eta kolore horietan oinarrituta dihardu bere collage erako lanak egiten. Gerediagaren proposamena teknika berri batzuk erabiliaz kartel moderno bat egiteko auke-

ratzat ikusi zuen Basterretxeak. Antolatzaileren lana nabarmendu du artistak: “Azoka antolatzeko egiten duzuen lana bihotzez eskertzea baino ez dagokit”. Bastoia eskuartean hartuta, patxadaz egin zuen berba. Oteiza aipatu zuen, eta euskal nortasunari buruzko adierazpenak ere egin zituen. “88 urte daukat, eta heriotzan pentsatzen dut. Baina borrokatzen jarraituko duzuela jakinda noa beste mundura. Eskerrik asko”.

Egun bat gutxiago

Aiert Goenagak azaldu zuenez, azken urteetako kartel lehiaketa alboratu eta Durangoko azokaren kartela artista bati enkargatu nahi izan diote aurten.

Bestalde, iaz baino egun bat gutxiago iraungo du Durangoko Azokak aurten: lau (Abenduaren 6tik 9ra). Aurtekontuaren inguruko aipamen txiki bat ere egin zuen zuzendariak: “Krisi ekonomikoak guri ere eragin digu, eta ezin dugu bost eguneko azoka baten aldeko apustua egin, kalitatean galduko genuelako”.



Pista Beltzean estolda bat hondatuta dago: "Pista Beltzeko zabor edukiontzien atzean estolda bat hondatuta dago. Espalioan zulo handi samarra eragin du, eta oinezkoentzako arriskutsu dago. Ezer gertatu aurretik kontontzea komeni da. Mila esker".



Altzolan egin dituzten lanak ez dira egokiak: "Auto gidariek abiadura murrizteko neurriak hartu behar ziren Altzolan, baina uste dugu obra horiekin ez dela asmatu. Mendaroko ospitalera behin baino gehiagotan anbulantzia abiadura handian joan beharko da, eta errepidean jarri dituzten isleta horiek oso arriskutsuak dira. Era berean, bidea asko estutu dute, eta autobusentzat eta kamioientzat oso leku gutxi dago".

Gabriel Krutzelaegi kalean ez litzateke aparkatu behar: "Gabriel Krutzelaegi kalearen alde batean autoek aparkatu egiten dute, eta ez da egoten lekurik bi auto gurutzatzeko. Kalea bi norabidetakoa den arren, bi auto ez dira kabitzen. Ikastola aurrean aparkaleku berria egin dute, eta auzotarrek aparkaleku hori erabili beharko lukete aparkatzeko, eta bidea libre utzi.



Uparitzaga kalea "botoiloaren gune" bihurtu da. "Zapatuetan jende askok "botoiloa" egiten du gure kalean. Zarata ateratzen dute, edonon egiten dute pixa eta pintadak ere egiten dituzte. Dena zikin-zikina uzten dute. Kalean edatea debekatua omen dago, baina udaltzainak ez dira azaldu ere egiten. Bizilagunak kokoteraino gaude egoera honetaz eta irtenbide bat eskatzen diogu Udalari".



Txalo handi bat San Migelgo igandeetako elizkizuna egiten duten emakumeei: "Oso ederra izan zen San Migel eguneko meza, organo, bertso eta agurrarekin. Baita biharamuneko elizkizuna ere, organo eta abesbatzarekin. Segi horrela!".



NEREA ERKIAGA

Txankakua elkarteko arduraduna

‘Dendak bizirik’ ekimena antolatu du Txankakua elkarteak, eta horren bueltan hainbat ekintza antolatu dituzte, Ostalaritza Elkartearekin batera.

“Dendariek eta ostalariek Elgoibarri bizia ematen diotela erakutsi nahi dugu”

Azken urteotako Txankakua Feriaren ordeztu ‘Dendak Bizirik’ ekimena antolatu duzue aurten. Beste formato baten alde egin duzue, zer dela eta?

Aurtengoarekin hamabigarren urtea litzateke gauza bera egiten, eta irudituz gero bazela aldatzeko ordua. Laz ere egon ginen aldatzekotan, baina bere horretan mantendu genuen azkenean. Orain artekoetan merkatariek produktu berriak eramatean zitzuten azokara, baina pentsatu genuen polita litzatekeela *outlet* antzeko bat egitea, beste sasoi baten arropak merkeago erosi ahal izateko. Orain arteko formatoak bazeukan estimazio bat, eta dendariak balorazio positiboa egiten zuten hurrengo egunetan. Orain ikusiko dugu honek zer ematen duen, baina itxaropentsu gaude.

Zer helbururekin antolatu duzue?

Dendariek, ostalariek eta herrian eskaintzen diren gainerako zerbitzuek Elgoibarri bizia ematen diotela erakutsi nahi dugu; elgoibartarrak jabetzea horiek guztiak gabe herria hila legokeela. Erosketa ohiturak aldatu egin dira, baina jendeak jakin behar du zein ona den daukagun aukera hori guztia herrian bertan izatea. Batetik, polita da, kaleko lokalak zabalik ikustea, jendearen atzera-aurrera, argiak... eta bestetik, aberasgarria. Baliteke ezer ez erostea, baina zerbaiten premia baldin badaukazu hori herrian bertan eskuratu ahal izatea abantaila handia da. Herriko denda eta ostalaritzako lokalak ixten badira ez dezala inork pentsatu jendea Elgoibarrera pasiazera etorriko denik; Eibarrera, Donostiara edo mendira joango dira denak. Badakit saltoki handi ugari zabaldu direla inguruan, Internet bidez ere denetarik eros daitekeela, eta badirela

prezio-kalitateari dagokionean eskaintza onak dituzten kateak ere, baina gogoeta egin behar dugu. Orain gu gazteak gara, baina gero zer etorriko da? esnea erosteko kotxea hartu behar izatea? Txankakua zerrandana dagoeneko ez daukagu ia autozerbitzuko denda txirikiri, eta horrek zer pentsatua eman beharko liguke. Garai batean Santana kalean hiru zeuden. Frantzia ere ikusi dugu zer gertatu den, herri asko hilda daude.

Zapatuko stock azoka beste hainbat ekitaldirekin jantzi duzue.

Bai. Ostalaritzakoek pintxo potea antolatu dute eguen eta zapatu eguerdirako, eta DJa ere ekarriko dute Maalara. Gu, berriz, 19:00etatik 00:00 arteko tarte hori betetzen saiatu gara. Denda batzuk zabalik egongo dira gaur gauean, eta denda atariak alfonbra gorriekin eta kandelekin apainduko ditugu, jendearen arreta pizteko. Batuka erakustaldia ere egongo da, Musika Eskolakoak kalejira irtingo dira, Josu Mujikaren dantzari taldeak dantza emanaldi bat eskainiko du, eta gauean Zuhaitz Gurrutxagaren kontzertua izango da.

BEZaren igoeraren inguruan zer balorazio egiten duzue?

Txarra. Beste zerga bat da, eta ona ez da, ez, azkenean bezeroak ordaintzen duelako hori, eta dendariak ezinbestean eragiten diolako.

Zenbat dendek parte hartuko dute biharko zapatuko stock ferian? zer erosteko aukera izango da?

Erropa dendak izango dira parte hartuko duten gehienak, baina beste-lakoak ere izango dira: parafarmaziako produktuak, bazarra, estetika produktuak... Momentuz, hamalau saltokik konfirmatu dute parte-hartzea.



Gaztelekua

2012-2013 ikasturtea

Egutegi eta ordutegi berria **URRITIK AURRERA**

ASTELEHENA	MARTITZENA	EGUAZTENA	EGUENA	BARIXAKUA	ZAPATUA	DOMEKA
ITXITA	ITXITA	17:00etatik 20:00etara	17:00etatik 20:00etara	17:00etatik 20:00etara	17:00etatik 20:00etara	17:00etatik 20:00etara

Zerbitzuaren ezaugarriak:

- ■ ■ **Zer da Gaztelekua?**
Elgoibarko herriari eskainitako zerbitzu publikoa da. Bertan, gazteoi baliabide desberdinak eskainiko zaizkizue zuen intereseko ekintzak gauzatzeko.
- ■ ■ **Norentzat da Gaztelekua?**
2000 eta 1995, urteen artean jaiotako nerabe guztientzat (13-18 urte).
- ■ ■ **Norekin etorri naiteke Gaztelekura?**
Bakarrik, talde txikietan edo koadrilan. Gaztelekuko hezitzaileok pozik hartuko zaituztegu.
- ■ ■ **Zertara joan naiteke Gaztelekura?**
Gabriel Kurutzelaegin dagoen lokala erabiltzera (ordenagailuetan jolastu edo lanak egitera, pelikula bat ikusi edo wiian jolastera, ping-pong edo mahai jolasetan aritzera, sukaldean zerbait prestatzera...), urtean zehar antolatzen diren ikastaroetan parte hartzera (orrazkera tailerra, perkusio ikastaroa, grafiti tailerra,...) edota irteera desberdinetara (barbakoak, udalekuak, lasergunera irteerak, karsetan ibiltzera...).
- ■ ■ **Nola parte hartu dezaket?**
Gaztelekura etortzeaz gain, zure iritzia eman dezakezu edo zure gustuko ekintza edo irteerak proposatu ditzakezu. Horretarako, iradokizun kutxa, "tuenti" sare soziala erabili ditzakezu edo gure helbide elektronikora idatzi (gaztelekua@gmail.com). Zure iritzia oso garrantzitsua da guretzat.



Gaztelekuko hezitzaileak

INFORMAZIO GEHIAGO:
Gabriel Kurutzelaegi, 4, behea
Tel.:943 743 228
gaztelekua@elgoibar.org
www.elgoibar.org



Kudeatzailea:





Futbol7 txapelketa jokatu zen Mintxetan.



Futbol7ko txapelkunak koparekin. ZORIONAKI!



Gamarrara irteera.



Zaldian ibili ginen Mutrikuko zalditegian.



Sallobenten egindako barbakoa.



16 urtetik gorako taldeak koadrilen arteko olinpiar jokoetan hartu zuten parte.



Olinpiar jokoetako irabazleak sariarekin. ZORIONAKI!

Ludoteka



Elgoibarko ludoteka 5-12 urte bitarteko haurrei zuzendutako zerbitzu sozio-hezitzaile bat da, non esku-hartze kolektibo eta pertsonalizatutako proiektuak oinarri hartuta, umeei zuzenduriko jarduerak erabiltzen diren.

ORDUTEGIA:
ASTELEHENETIK OSTIRALERA
16:30etik 19:30era

BAZKIDETZA KUOTA

- 2012ko irailetik-2013ko uztaileira: 45€
- Famili ugarien kasuan %30eko deskontua (bazkidetza 31,5€).
- Gizarte zerbitzuetako zenbait programen erabiltzaileak diren familiek %70eko deskontua (13,5€).
- Famili ez ugarien kasuan, bigarren seme-alabak %30eko deskontua (31,5€)

BAZKIDETZA EGITEKO:

- KUTXA-ko kontu honetan egin behar da ordainketa 2101-0036-69-0000089508. Kontzeptuan umearen izen-abizenak/Ludoteka jarri behar da.
- Ordainagiria Ludotekara ekarri eta hemen izena emateko fitxa eta baimenak beteko dituzue

INFORMAZIO GEHIAGO:
Gabriel Kurutzelaegi, 6, behea
943 748 883
ludoteka@elgoibar.org
www.elgoibar.org



Kudeatzailea:



5 eta 12 urte bitarte dauzkazu? Lagunekin jolastea eta ondo pasatzea gustuko dituzu? Ludoteka da zuretzako lekua!

familia irteerak



panpinak

festak

txapelketak



mahai eta karta jokoak ordenagailuak

antzerkia

liburuak

jostailuak

lagun berriak

saskibaloia

irteerak

eskulanak

pelikulak

wii/play station

jostailuen mailegua

oporraldietako eskaintza berezia

aste nagusia

futbolina

sukaldaritza

talde jolasak

Zure zain gaude!



scalextric

marrazkiak

Erretratu zaharra



1977

Aste honetako erretratu zaharra Sigmako auzokide batek ekarri du BARRENERA. Garai hartan Sigma auzoko jaiak antolatzen zituzten, eta argazki hau urte hartako festetan ateratakkoa da. Gogora ditzagun zeintzuk diren mutil gazte horiek:

Ezkerretik eskumara: Javier Noguero (†), Alberto Hernandez, Jesus Beraza, Jose Luis Amuategi (†), Joseba Panizo. **Atzean:** Antonio Sanchez. **Behean, lehen planoan:** Consuelo Lara.



CORDON VILARCHAO

San Roke, 7 behea
Pel. Glaso - Glasape kalea, 18 - 25 eta 26 moduloa
Tel. 943 743 670

DEKORAZIOA

Kargu eta barmeko estaldura
Zolak ezarria
Lantekua: eguzi, aluminio, PVC
Pintura orokorra



**Jarri ezazu zure publizitatea
BARRENeN edo
www.elgoiBARREN.net
webgunean**

barren.publi@elgoibarkoizarra.com

B ARREN
astekarian
943 744 112






MEKANOSA
Errosario, 27
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA
ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX

Gotzon Garate Goihartzun (1934-2008)

"Euskarak eta euskal kulturak elkartu behar gaitu. Zenbat eta kultura gehiago izan, garbiago ikusten duzu euskarak eta gure kulturak zenbat balio duten. Izan ere, euskal kontzientzia ezagutzatik sortzen da. Esatera zaharra da, ezagutzen ez dena ez dela maitatzen".



Urriaren 8a berezia da guretzat, Gotzon.
Zutaz gogoratzen gara, eta gure euskaltasunak dirdira berezia izaten du egun horretan.



ELGOIBARKO IZARRA
KULTUR ELKARTEA

JAVIER ARRIZABALAGA Aiastiako alkate ohia



Javier Arrizabalaga eta Juanjo Galdos, Aiastiako alkate berria, elkarri bostekoa ematen.

“Esku onetan dago Aiastia”

1986an hartu zuen Aiastiako alkate kargua Javier Arrizabalagak, eta 26 urte egin ditu auzoa zuzentzen. Bere emazte Maria Pilar Aranzabalen ordez sartu zen alkate, eta Juanjo Galdosen esku laga du orain aginte makila. Gustura doa egindako lanaz, eta urte guzti hauetan berak izan duen babesa eskatu du bere ondorengoarentzat.

Zeintzuk ziren alkatetza hartu zenuenean Aistian zenituzten beharrak handienak? Zer helburu jarri zenion zeure buruari?

Gauza asko falta genituen: argindarra, telefonoa, errepideak... Baina hiru horiek zuten lehentasuna, eta horiei heldu genien. Obra gehien egin diren auzoa izango da ziurrenik, baina egin diren guztiak auzolanean egin ditugu. Auzolanean egin ez balira, horiek ez genituen sekula egingo.

Auzolana bada, bai, Aiastiaren ezaugarrietako bat. Zelan antolatzen

zarete? eta zertarako balio izan dizue?

Auzolana beti da ona. Gure kasuan bailara batzeko balio izan du, batetik, eta, bestetik, behar askori erantzuteko. Udalak materiala ematen zigun, baina dirurik sekula ez, eta emandako horrekin geuk egin genituen auzoan egin beharrekoak. Frontoia bera ere bederatziz abuztutan jaso genuen, auzolanean. Erraz esaten da, baina pentsa ezazu zer den hori. Bederatzi urtez jarraian, abuztuan, egunero-egunero, auzotarrak lanean ibili ziren. Txandak antolatzen genituen eta han ibiltzen ginen

denok. Emakumeek, berriz, bazkaria eta afaria prestatzen ziguten. Frontoia egiteko lur saila erosteko eta zeuden beste gastu batzuetarako ere baseri bakoitzak, hasi hemen Pepeinen eta goraino, 10.000 pezeta jarri zituen, oso oker ez banago. Gero, jaietan so-bran gelditzen zen dirua ere poltsa horretarako izaten zen.

Garai hauetan auzolanari eustea bera ez da makala.

Bai, egia esan gero eta zailagoa da auzolanean gauzak egitea, bai-na Aiastian niri behintzat ez zidan aparteko lanik eman hori zuzen-tzeak. Aiastian beti egon den zerbait izan da. Eliza bera ere auzo-lanean jaso zuten gure aurrekoek, eta mantenu lanak auzolanean egin dira bizi osoan, baita gaur ere. Garai batean bideak ere auzo-lanean garbitzen genituen. Orain Debemen dago, eta haiek ardu-ratzen dira. Erosoagoa izango da, beharbada, baina niretzako ez da ona, eta esango dizut zergatik: auzolanak bailara sentimendua indartzeko balio du, auzo oso bat batzeko. Inork egin dituen gau-zak zaindu ere ez dira egiten. Aldiz, norberak parte hartu badu ho-rretan hobeto baloratzen da hori egiteak suposatzen duen esfor-tzua.

Alkatetza laga duzu. Badago zure agintaldian egiterik ezin izan du-zun zerbait? Zelan bizi izan dituzu urte guzti hauek?

Auzoan teknologia berriak sartzea. Zuntz optikoa sartzea, auzoko lokal sozialetan informatika eskolak eskaintzea... Ura izan da azke-na sartu duguna, eta esan dezakegu oinarriko zerbitzuak denak ditugula, baina teknologia berrietan sartzea komeni zaigu. Bu-ruhauste asko izan ditut horrenbeste urtean, baina balorazio posi-tiboa egiten dut. Alkate izateak asko eman dit. Batetik, auzotarren premiak ezagutzeko balio izan dit, eta bestetik, auzotarrak eurek ere hobeto ezagutzeko aukera eman dit.

Juanjo Galdosek hartu du zuk lagatako ardura. Nola ikusten duzu?

Oso pertsona jantzia da, gaitasun handikoa, eta auzotarrek niri la-gundu didaten beste laguntzen badiote asko egin dezake Aiastia-ren alde. Konfiantza osoa dut Juanjorengan. Esku onetan dago au-zoa. Gauza bakarra eskatuko nieke auzotarrei: nik izan dudana la-guntasuna ematea Juanjori ere.

Auzoetako alkateek zer nolako harremana dute Udalarekin?

Estua. Auzoak falta dituen gauzak identifikatu eta gai horiek udale-txera eraman behar dira. Astuna izan behar da, kaso egin diezazu-ten. Hauteskunde sasoiari etekin handia atera daiteke, esaterako. Esango nuke apur bat politiko ere izan behar dela.

Alkatetza laga osteko lehenengo jaiak izan dituzu hauek. Zelan bi-zi izan dituzu?

Demaseko ondo. Trankilago ere bai! Auzoetan ez dago kalean be-zala brigadarik eta ezer e! Han norberak egin behar du dena. Eki-taldiak antolatu, jaso, bazterrak txukundu... Egun osoko lana da, eta auzolanean egin behar da dena. Jai batzordeak antolatzen du dena. Udalak 3.000 bat euro ematen ditu, baina jaien aurrekontua 10.000 euroren bueltakoa da, eta ahal den lekutik batu behar iza-ten dira. Batzar asko egin behar izaten dira. Elgoibarko Udalak he-rritarren parte-hartzea sustatzeko antolatu duen hori aspaldi asma-tu genuen auzoetan.

Zer da Aiastiar erakusteko daukana?

Auzotarren batasuna, eta hori esan bezala, auzolanak egiten du.



Pello Pagadizabal aiarrak eta Lan txakurrak irabazi zuten Artzai Txakur Txapelketa, eta Manuel Gorriti eta Nere eta Jose Ramon Orbeago eta Alai sailkatu ziren bigarren eta hirugarren.



26 korrikalarik parte hartu zuten Aiastiako Igoeran.



Iñigo Lariz nagusitu zen Aiastiako igoeran (19:49).



Haritz dantza taldeak dantza ikuskizuna eskaini zuen zapatu gauean Murkaikupe frontoian. www.elgoibarren.net atarian dauzkazue Aiastiako jaietako argazki gehiago eta sailkapenak.

Errosario kaleko jaien barruan ezpata dantza eskainiko du Haritz dantza taldeak domekan

Duela 500 urteko tradizioa da, Haritz dantza taldeak 2009an berreskuratu zuena

Lugarren urtez jarraian ezpata dantza eskainiko du Haritz dantza taldeak domekan, Errosario kaleko Ama Birjinaren omenez. Urte askoan galduta egon bada ere (2009an berreskuratu zuten), aspaldiko ohitura da hau. Koldo Lizarralde-ren *Elgoibar dantzan* liburuan azaltzen denez, orain 500 urte ingurukoa bai, gutxienez. Zenbait iturrik gerrarekin lotzen dute dantza hau, eta beste zenbaiten ustez gehiago da gremioen dantza. Garbi dagoena da herriko pertsona ezagunak omentzeko egiten zela sasoi batean. XVI. mendean Corpus egunean dantzatzen zuten Elgoibarren, baina gerora, Errosario kaleko Ama Birjinaren Kofradia sortu zenean, urriko lehenengo domekan dantzatzen hasi ziren.

Ezpata dantzaren birmoldaketa bat da Haritz dantza taldekoek domekan egingo dutena, Juan Antonio Urbeltz dantza aditua-



ren laguntzarekin Elgoibarrera moldatutakoa. Meza Nagusian lau buruzagiek Jainkoaren Aurreko Dantza egingo dute, eta ondoren, Kalegoen Plazan, Kalebarrenen, Errosario kalean (Ama Birjinaren irudiaren aurrean) eta

udaletxe aurrean egingo dute dantza. Bukarera, eta ohitura den legez, pastak eta ardo goxoa banatuko dituzte plazan gerturatzen diren guztientzako. 11:00etako Meza Nagusian hasiko da dantzaldia.

‘Goenkale’ antzezlanaren estreinatuko dute hilaren 19an Elgoibarko Herriko Antzokian



Elgoibarren estreinatuko dute Pausokak eta Glu-Glu produkzioak taldeak *Goenkale* antzezlanaren, Herriko Antzokian. Urriaren 19an izango da estreinaldia, 20:30ean, euskaraz. Jokin Oregi zuzendariak, Kepa Errastik eta Pausokako gidolari taldeak sortu dute antzezlanaren, eta Goenkale telesailako aktoreek emango diote bizia: Felix Arkarazo, Karlos Nguema, Maria Cruickshank, Xabier Perurena, Yannick Vergara eta Iylenia Baglietto. Sarrerak bederatziko euro balio ditu, eta Gazte Txartela dutenei hiru euroko deskontua egingo diete.

Emakumeentzako barreterapia ikastaroa

Barreterapia tailerra antolatu du Elgoibarko Berdintasun Sailak emakumeentzako. Zapatuan egingo da tailerra, Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Sei orduko tailerra izango da. Goizez, 10:00etatik 14:00etara, eta arratsaldean, 16:00etatik 18:00etara. Miriam Herbonek emango du tailerra, eta parte hartzeko ezinbestekoa da izena ematea. Horretarako, 943 748 270 telefono zenbakira deitu behar da (Nora Ramon) edo nora@imh.es helbidera idatzi.

Dantzan.com webgunea martxan da berriro

Urriaren 1etik aurrera martxan da berriro *dantzan.com* webgunea, eta gainera, berrikuntzekin argitaratu dute. 1.542 norbanakoen eta 92 erakunde, elkarte eta ekimenen sinadura atxikimendua jaso dute guztira.

Gaur zortzi jokatu da San Pedroko bizikleta igoera

12:00etan hasiko da Kalegoen plazan

Urtero legez, urriaren 12an, gaur zortzi, jokatu da Julian San Juanen Oroi-menezko San Pedroko Igoera. Lagun Taldeak antolatzen du bizikleta proba hau, eta iaz 61 lagunek parte hartu zuten. Gizonezkoetan, Iñigo Lazkano mendarorak irabazi du azkeneko bi urteetan. Iaz, 14 minutu eta 17 segundotan egin zuen Kalegoen plazatik Idortorberainoko bidea. Emakumezkoetan, berriz, Ainhoa Lendinez elgoibartarra gailendu zen, eta errekorra ezarri zuen gainera, 17:40ko denborarekin.

12:00etan hasiko da lasterketa, Kalegoen plazan. Gizonezkoetan, Iñigo Larizek dauka errekorra, (13:21) eta emakumezkoetan, Ainhoa Lendinezek.



EMAITZAK

FUTBOLA

Lagun Onak 1 – Haundi 1 (3. maila)
Elgoibar 1 – Soraluze 1 (Erreg.)
Elgoibar 5 – Amara Berri 1 (Neskak)
Elgoibar 5 – Anaitasuna 4 (Jub)
Elgoibar 4 – Eibar 2 (Kad. A.)
Urki 0 – Elgoibar 1 (Kad. B)
Anaitasuna 7 – Elgoibar 1 (Ohorezko inf.)

ESKU PILOTA

Gipuzkoako txapelketa

Lagunak 22 – Arrasate 16 (2. mailako nagusiak)
Zestoa 22 – Lagunak 13 (2. mailako kadeteak)
Añorga 22 – Lagunak 5 (2. mailako nagusiak)
Lapke 22 – Lagunak 4 (2. mailako kadeteak)
Palaz
Loiolatarra 25 – Lagunak 20 (1. mailako nagusiak)
Loiolatarra 25 – Lagunak 18 (2. mailako nagusiak)

ARETO FUTBOLA

Kenci Elg. 4 – Gala Gar 8 (Nazional B)

ESKUBALOA

Alcorta Elg. 23 – Trapagaran 23 (Sen. mut.)
Bera Bera 22 – Lauko 20 (Jub. neska.)
Bera Bera 17 – Astigarraga Elg. 30 (Kad. neska.)

AGENDA

ARETO FUTBOLA (Kiroldegian)

Zapatua, 6
19:30 Concepto – Colo-Colo (1. maila)

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 6
9:30 Elgoibar – Sance (Inf. Txiki)
11:00 Elgoibar – Mutriku (Kad. B.)
12:45 Elgoibar – Aloña Mendi (Ohorezko inf.)
Domeka, 7
17:00 Elgoibar – Portugalete (Haundi)

ESKUBALOA (Kiroldegian)

Zapatua, 7
16:00 Astigarraga Elg. – Kukullaga (Kad. neska.)
17:30 Lauko Elg. – Kukullaga (Jub. neska.)

ESKU PILOTA (Ikastolako frontoian)

Barxakua, 5
21:15 Lagunak – Oiarpe (2. mailako nagusiak)
Palaz
22:00 Lagunak – Batzokiko (2. mailako nagusiak)
22:45 Lagunak – Batzokiko (1. mailako nagusiak)
Zapatua, 6
19:00 Lagunak – Gazteleku (2. mailako kadeteak)
19:45 Lagunak – Eple (2. mailako kadeteak)
20:30 Lagunak – Lapke (2. mailako kadeteak)

Zumba ikastaroa antolatu du Kirol Patronatuak

Elgoibarko Kirol Patronatuak Zumba ikastaroa antolatu du. Urriaren 15ean hasiko da, eta helduentzako zein umeentzako saioak eskainiko dituzte. Kirol Patronatuko bazkideek 30,50 euro ordaindu beharko dute, eta bazkide ez direnek 49,25 euro. Olaizaga kiroldegian edota Mintxetan eman daiteke izena.

Arkaitz Egañak irabazi du Gipuzkoako ehiza xehe txapelketa



Zanbranan jokatu zuten joan zen domekan Gipuzkoako ehiza xehe txapelketa, eta Arkaitz Egaña elgoibartarrak irabazi zuen. 11 eper bota zituen, Sol txakurraren laguntzarekin.

Sanlok hasi du denboraldia

Federatutako hamalau talde eta
300 jokalaritu Klubak

Sanlo eskubaloi taldeak familia argazkia atera zuen joan zen zapatuan Mintxetan. Urtetik urtera handituz doan familia da Sanlorena, eta jokalaritu, entrenatzaile, guraso eta jarraitzaileen arteko elkarulertze ona dago arrakasta horren atzean. Aintzat hartzekoak dira Klubarren aurtengo zenbakiak: federatutako hamalau talde osatu dituzte (neskenak zazpi eta mutilenak beste zazpi), hiru talde daude Eskubaloi Eskolan (neskenak bi eta mutilenak bat), eta 300 jokalaritu inguru dituzte Klubak. Hain egin da handia familia zuri-gorria, Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak akordioa egin behar izan duela Debako Udalarekin, Sanlo eskubaloi taldeko Alcorta eta Tecnifuelle senior taldeak, astean birritan, Debako kiroldegian entrenatu ahal izateko. Sanlo taldea arduratuko da joan-etorrien gastuez, eta Udal Kirol Patronatuak Debako kantxaren alokairua ordainduko du. Era berean, Patronatuak entrenatzeko ordu gehiago eskainiko dizkio aurtengo Sanlori. Aurrekontua ere handitu du Klubak iaztik hona. Aurtengo, 120.000 euroren bueltakoa izango da (iaz, 90.000 ingurukoa zen). Denboraldi berrirako jarritako erronkak ere asko dira, talde bakoitzak berea duelako. Alcantara, esate baterako, Nazional mailako mailari eutsi nahiko lioke, Tecnifuellek berritua ere Euskadiko Txapelketa irabazi, gizonezkoen seniorretako bigarren taldeak, berriz, Gipuzkoako lehen mailara igotzea du helburu, eta kadeteetako eta jubeniletako neskek Euskadiko mailari eustea. Adin tarte bereko mutilen helburua, berriz, maila horretara igotzea da. Gainerakoan, bazkide kopurua handitu nahiko luke Klubak, eta ekonomikoki garai berrira egokitu. Halaxe aitortu du Cesar Arriola Sanlo eskubaloi taldeko presidentek.



Etxean jokatu du denboraldiko lehen partida areto futboleko Concepto Egile taldeak, zapatuan, Confort Colo Coloren kontra



Concepto Egilek denboraldi berrirako fitxatutako jokalaritak.

Bukatu du aurrendenboraldia areto futboleko Concepto Egile taldeak, eta zapatuan izango du denboraldiko estreinako partida, Olaizaga kiroldegian. 19:30ean hasiko da partida, eta Confort Colo Colo taldea izango dute aurrez aurre.

Aurre denboraldian lortutako emaitza onak kontutan hartuta, denboraldia indartsu hasiko dutela esan daiteke. Izan ere, lau garaipen eta berdiketa bat lortu dituzte aurrendenboraldian. Joan zen zapatuan jokatu zuten azkeneko norgehiagoka, Zierbenaren kontra. Bigarren mailako taldeen artean Gipuzkoako eta Bizkaiko talde sendoenak dira Concepto Egile eta Zierbena, eta ikusmin handia zegoen zapatuko partidarako. Partida lehiatua izan zen, eta azkenean launa amaitu zuten.



Pilota jaialdia antolatu dute biharko, Errosario kaleko jaien barruan

Errosario kaleko jai batzordeak eta Lagunak taldeak pilota partida antolatu dute biharko, Errosarioko Ama Birjinaren omezezko jaien barruan. Goizean, pala partida izango da Kalegoen plazan. Joseba Etxeberria eta Unai Leiaristik osatuko dute bikote bat, eta Eulogio Mancebo eta Andoni Etxeberriak bestea. 11:00etan hasiko da partida, eta gomazko pilota erabiliko dute.

Ondoren, 12:30ak bueltan, eskuz binakako partida izango da leku berean. Mikel Goñi oroztarrak eta Arrastoak osatutako bikoteak Txafe eta Eskuderoen kontra neurtuko ditu indarrak.



Mikel Goñi, Mendaroko santana jaietan.

LANA

ESKAERA

- Emakumea edozein lan egiteko prest. Adinekoak zaintzen esperientzia dauka. ☎ **650 152 866**
- Gizonezkoa lanerako prest. Biltegian, garraiolari, baserrian... ☎ **649 659 041 (Diego)**
- Emakumea adinekoak zaintzeko prest. ☎ **633 843 512 (Lorena)**
- Neska gaztea umeak edo nagusiak zaintzeko edo garbiketarako egiteko prest. Esperientziaduna. ☎ **661 642 764**
- Emakumea nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **699 232 823**
- Emakumea nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **636 247 429**
- Emakumea nagusiak edo umeak zaintzeko prest. ☎ **664 009 684**
- Emakumea nagusiak edo umeak zaintzeko prest. Baserriko lanak ere egiteko prest. ☎ **631 155 950**
- Neska lan bila: etxeko lanak egin edo tabernan laguntzeko prest. Erreferentzia onak eta papelak legez ditut. ☎ **664 182 488**
- Emakumea nagusiak edo umeak zaintzeko prest. In-terna edo orduka. Papelak legez. ☎ **671 139 176**
- Emakume euskalduna nagusiak zaintzeko prest, etxean nahiz ospitalean. Esperientziaduna. ☎ **660 511 781**
- Gizona edozein lan egiteko prest. ☎ **636 029 526**

- Neska gaztea garbiketa lanak egin edota umeak eta nagusiak zaintzeko prest. ☎ **648 603 029**
- Emakumea lanerako prest. Esperientzia okin eta garbiketa lanetan. ☎ **675 452 060**
- Neska gaztea garbiketa lanak egin edota umeak eta nagusiak zaintzeko prest. ☎ **627 626 052**
- Emakume euskalduna umeak zaintzeko prest. ☎ **617 637 133**
- LHko eta euskarazko klaseak ematen ditut. Esperientzia daukat. ☎ **697 322 306**
- Mutila, lan bila. ☎ **688 812 845 / 943 257 671**

ESKAINNTZA

- Sukaldaria behar da Mendaroko taberna batean as-teburuetan lan egiteko. ☎ **943 530 284**
- Donostiako enpresa batek teknikari saltzailea behar du. Curriculumak bidali: info@murplastik.es
- Asteburuetan ostalaritzan lan egiteko neska euskalduna behar da. Curriculumak bidali erretratuarekin, **174 posta kutxatilara.**

ETXEBIZITZAK

- Etxea alokairuan Elgoibarren. Bi logela, sukaldea, despentsa, egongela. Jantzita. Eguzkitsua eta igogailuarekin. ☎ **655 711 334**
- Etxea hartuko genuke alokairuan. Bikotea eta seme-alabak. Nomina daukagu. 3 logela eta berogailua ezin-bestekoak. ☎ **634 718 510**

- Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ **600 621 605**

GARAJEAK

- Garaje itxia alokairuan Urasandin, Anayak eraikinean. Bi solairu ditu. Autoa gordetzeko edo biltegi bezala erabilitzeko aproposa. ☎ **943 742 306**
- Garaje marraduna alokairuan Santa Ana kalean. ☎ **667 083 913**
- Garaje marraduna alokairuan Pedro Muguruza 11n. ☎ **606 707 915**

BESTELAKOAK

- Umorearen kotxe-aulkia salgai. Jane Belmoral markakoa. Osagarri guztiekin: hamaka, bainera... Sehaska opari. ☎ **646 095 256**
- Umeak lotarako darabilen trapuzko pampina galdudut, Pedro Muguruza eta Lerun artean. Balio sentimental handikoa da. ☎ **636 045 792**
- Planoa salgai. Yamaha Clavinova CLP 920. Berri berria. Prezioa adosteko. ☎ **605 771 093**

KINTOAK

- 1942ko kintoek bazkaria egingo dute azaroaren 10ean, Sigma jatetxean. Interesatuak 45 euro ordaindu behar dituzte, Euskadiko Kutxako kontu korronte honetan: **3035 0007 24 0071125336**

Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira.


- Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: **18€** (alokairua) - **20€** (salmenta). Autoak saltzea: **15€**. Bestelakoak: **8€**. Iragarkiari erretratua jarriz gero, **6€ gehiago** ordaindu behar dira.

- **BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:** Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: **12€** (alokairua) - **15€** (salmenta). Autoak saltzea: **12€**. Bestelakoak: **6€**. Iragarkiari erretratua jarriz gero, **5€ gehiago** ordaindu behar dira.

ZORIONAK ZURI




• Zorionak, **Leire**, hila- ren 29an 8 urte handi bete zenituelako. Muxu potolo bat, etxeko- en eta lagunen partez.



• Aupa, **bikote**. Azkenean iritsi da eguna! Etxekoekin, lagunekin eta gonbidatu guztiekin egun zoragarria pasa dezazuela opa dizuete familia- koek.




• Gezurra dirudi, baina argazki hau atera zenu- tenetik hamar urte joan dira. 60 urte bete dira ezkondu zinatenetik, eta zapatuan ospatu genuen. Zorionak, eta muxu bat, etxekoan partez.



• Zorionak, **bikote**. Azkenean iritsi da zuen ez- kontza eguna. Primeran pasako dugulakoan, muxu bana, koadrilakoan partez.

• Zorionak, **Ainhoa Castillo**, asteazkenean 36 urte egingo dituzula- ko. Muxu handi bat, amamaren partez.

AGURREN ATALEKO PREZIOAK EGUNERATU EGIN DITUGU: Erretratu bakarreko agurra 4€. Argazki bikoitza 6€, hirukoitza 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12 €. **ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:** Erretratu bakarreko agurra 3€. Argazki bikoitza 5€, hirukoitza: 7€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 10 €. Argazkiak **eguzten eguerdia** baino lehen ekarri behar dira **BARRENEKO** bulegora, 12:00ak baino lehen, edo barren@elgoibarkoizarra.com e-postara bidali.



• Zorionak, **Unai**, urriaren 1ean 7 urte egin zenituelako. Muxu handi bat, etxeko guztien partez.



• San Migel jaiekin batera iritsi dira zure urtebetetzea. Zorionak, etxekoan partez.



Zorionak, **Jakes**, zure lehenengo urtebetetzean, guraso eta familiako gainerakoan partez. Segi gerra ematen, Tatankal.



• 6 urte! Sorpresa ugari! Hau poza! Zorionak, **txapeldun!**



• Zorionak, **Markel**, asteazkenean 10 urte bete zenituelako. Muxu asko, familiakoan partez.



• Zorionak, **aita, aittital**. Gaur 90 urte bete dituzu, eta merezi dozun bezela ospatuko dogu bixar. Besarkada bat, etxekoan partez.



• Zorionak, **printzesa Malen**, gaur 3 urte egin dituzulako. Muxu handi bat, aitatxo, amatxo eta familiako gainerakoan partez.



• Zorionak gure motorzale txikiari, **Jaiorri**, bere bigarren urtebetetzean. Aita, ama eta bereziki ahizpa Aman-daren partez.



• Zorionak, **Nora**, asteartean 4 urte potolo beteko dituzulako. Muxu handi bat, amamaren partez.



• Zorionak, **Danel**, gaur zure urtebetetze eguna delako. 10 tirakada belarritik, familiakoan partez.



• Zorionak, **Joni** Bihar 6 urte! Patxo potolo bat etxekoan, eta bereziki, Maialenen partez.



• Zorionak, **Paul**, atzo urtetxo bat egin zenuelako. Muxu handi bat, etxekoan partez.



• Zorionak, **Aimar**, astelehenean 3 urte! Patxo handi bat, etxeko denon partez.



• Zorionak, **Garazi**, asteazkenean 6 urte betetzen dituzulako. Muxu potolo bat Elurren, Unairen eta lehengusuen partez.



• Zorionak, **Ander**, hilaren 30ean 11 urte bete zenituelako. Familiakoan partez. Bereziki, Nerea, Leire, Paula eta Sarak.



• Zorionak, **Oinatz**, irailaren 27an 5 urte bete zenituelako. Bost muxu potolo guztien partez, bereziki arrea lhintzak.



• Zorionak, **bikote**. Iritsi da zuen egunal Zorionak, familia osoaren partez.



• Zorionak, **hirukote**. Azkenean iritsi da egunal Egun polita opa dizuegu, eta orain arte bezain zoriontsuak izatea. Gurasoen, eta bereziki, Juneren partez.



• Zorionak, **bikote!** Uztailaren 26an 5 urte bete zenituelako, zorionak, **Markel**, eta zuri, **Elene**, zorionak, gaur 3 urte egin dituzulako. Patxo potolo bat, maiteak!




• **Nerea eta Yon**, GU BAGOAZI! Bihar zuen eguna da. GOZATU!




• Zorionak, **Jabier, Manex eta Iker**. Zorionak zuei, Iker eta Jabier, hilaren 4an eta 1ean zuen urtebetetzeak izan direlako, eta zorionak, zuri, Manex, hilaren 8an, astelehenean, zure eguna delako. Muxu asko, aiton-amonen, osaba-izeben eta lehengusuen partez.



• Zorionak, **Garazi Arriolari**, astelehenean 8 urte egingo dituzulako. Etxekoan partez. Bereziki ahizpa Irunek.



• Zorionak, **bikote!** Oso ondo pasa zuen ezkon-tza egunean. Mekoren lagunen partez.



• Soinekoak, gorbatak, zapatak, *agatxadillak, un blen bleak...* Gu prest. Eta zuek? Zorionak, bikote! "Nekaezinak"?



• Zorionak, **Yon eta Nerea!** Azkenik iritsi da zuen eguna! Ondo-ondo pasatu eta oso zoriontsuak izan elkarrekin. Muxu handi bat, Julen txikiaren partez.

5 barixakua

Erakusketa

18:30 Emilia Nogales

Margolari elgoibartarraren erakusketa, Kultur Etxean. Hilaren 20ra arte egongo da ikusgai.

Dendak bizirik feria

19:00 Trikitilarien kalejira

19:00 Batukada

20:15 Dantza ikuskizuna

Biraka taldearekin, Kalegoen plazan.

23:00 Kontzertua

Zuhaitz Gurrutzagak kontzertua eskainiko du. Vanpopel taldearekin Lekuederren.

6 zapatua

Feria

10:30 Stock feria

Txankakuako merkatariek denboraldiz kanpoko jantziak jarriko dituzte salgai. Lekuederren. Eguerdian, pintxopoteoa.

23:00 DJ

Maalan.

10 eguztina

Hitzaldia

19:00 Euskara Nafarroan

Nafarroa arragoa egitasmoaren barruan, Kike Diez de Ultzurrunek eskainiko du hitzaldia. Kultur Etxean.

ERROSARIO KALEKO JAIAK

URRIAK 5, BARIKAKUA

17:30 Kiribilka

Errosario kalean.

19:00 Mauxitxa txarangaren kalejira

Buruhandiekin.

20:00 Igel-toka txapelketa

Jai Alai tabernaren kanpoaldean.

21:00 Afaria

Kultur Etxeko sotoan.

URRIAK 6, ZAPATUA

13:00 Pilota partida

Kalegoen plazan.

19:00 Errosarioa eta meza

Kalean hildakoen omenez.


20:00 Salbea

URRIAK 7, DOMEKA

11:00 Meza Nagusia


Ondoren, Errosario kaleko ezpata dantza

Haritz dantza taldekoekin eta txistulariekin.

Pilar eguna dela eta,
urriaren 12an
Ludoteka **ITXITA**
egongo da.

Hilabete honetan
PING-PONG TXAPELKETA.
Izenemate epea
urriaren 14an bukatzen da.



OKINDEGIA
6 domeka **IBARRENEA**

BOTIKA ORDUTEGIAK
9:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK

Egunez 9:00 - 22:00	Gauetz 22:00 - 9:00	Fernandez Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro) Tel: 943 756 142
5 Garitaonandia	Garitaonandia	Ibañez Rekalde, 1 (Soraluze) Tel: 943 751 638
6 Etxeberria	Etxeberria	Zabaleta Kalebarren, 9 (Soraluze) Tel: 943 751 384
7 Etxeberria	Barrenetxea	
8 Fernandez	Barrenetxea	
9 Yudego	Yudego	
10 Fernandez	Garitaonandia	
11 Yudego	Yudego	

ZWEA

«Ted»
5, barixakua: 22:15
6, zapatua: 19:00/22:15
7, domeka: 19:00
9, astelehena: 21:30




«Ice age 4»
6, domeka: 16:30



**3 LOGELETAKO
ETXEBIZITZAK**

Orain

190.000 €-tik

Duplex-ak

215.000 €-tik

Sukaldeak barne

Tel.: 943 744 303
943 812 462

Informazio gehiago:
San Bartolome, 14 behea
www.ubitarte.com

ANTZIBAR
CONSTRUCCIONES-ERAIKUNTZAK

NAFARROA!
arragoa!

nahia- eta ezinaren borroka-toki ekaitze- bete

AZAROAK 1- 4
ORREAGATIK BELAGUARA mendia ibilaldia

URRIAK 20, ZAPATUA

Iñaki Perurenaren etxera egunpasa;
gauean, bertso-kantu afari nafarra Gaztetxean

EGITARAUA ETA PREZIOAK:

- 12:00 Peru-Harrira joateko autobusa King-Kong zubian.
- 19:00 Elgoibarrera buelta autobusean.
- 21:00 Bertso-kantu afari nafarra Gaztetxean, Uxue Alberdi eta Ander Lizarralde bertsolariekin. Gilaran Iñaki Larrañaga.

PREZIOAK:

- Peru-Harrira bisita: 15 euro
- Bertso-kantu afari nafarra: 20 euro
- Egun osoa: 30 euro (Elgoibarko Izarako bazkideek, ikasleek, langabetuek eta pentsiodunek 28 euro)

- Azaroak 1, osteguna: Orreaga-Mendilaz
- Azaroak 2, ostirala: Mendilaz-Otsagi
- Azaroak 3, larunbata: Otsagi-Izaba
- Azaroak 4, Igandea: Izaba-Belagua


PREZIOAK:

- Bazkideek: 110 euro (90 euro ikasle eta langabetuek)
- Bazkide ez direnak: 120 euro
- Ordaintzen dena: 3 gosari, 3 afari, Otsagiko kanpina, Izabako apartamentua eta autobusa.

Izen-ematea zabalik Morkoikon eta Elgoibarko Izaran

nahia- eta ezinaren borroka-toki ekaitze- bete

Antolatzaileak:



Izen-ematea: urriaren 5etik 15era bitartean
(Elgoibarko Izaran, komunikazio@elgoibarkoizarra.com - 943 741 626 (Ainhoa))



Gremioen GIDA



Aroztegiak

Asima

Mota guztietako arotz lanak
Ermuaranbide, 18
☎ 687 15 02 26
☎ 650 02 66 31

Biena

Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 12-14- 16 behea
☎/Faxa: 943 74 31 16
www.biena.es
info@biena.es

Imar

Aroztegia
Olaso 15,55 pabilloia - A1
☎ 943 53 14 71
☎ 609 05 49 78
Era guztietako arotz-lanak

Lodoso Leihoak

Sigmako industrialdea
Xixillon 2-2. pabilloia - 3. zenb.
☎ 943 74 34 90
Faxa: 943 74 73 12
www.fjlodoso.euskalnet.net

Ulazia

Aroztegia eta enbalaiek
Santa Klara, 10
☎ 943 74 05 47



Igeltseritza

E. Arandia

Urasandi, 22 behea
☎ 605 70 52 04



Iturgintza, berogailua, eguzki energia, gasa eta klimatizazioa

Ibámar

Bernardo Ezenarro, 2
☎ 943 53 18 47
☎ 647 463 436 (Floren)

Ongi

Pedro Muguruza etorbidea,
11 behea
☎ 943 25 45 22

Pagoaga

San Antolin, 13
☎ 943 74 02 79

Pagoerrotia

Herriko Enparantza, 10 behea
MENDARO
☎ 943 75 60 44/659 33 43 23

Tellabide

Azpilgoeta, 7 • Mendaro
☎ 943 75 50 62/607 75 50 62

Santana Iturgintza eta instalazioak

Urasandi, 17
☎ 943 74 05 30/605 71 49 05
Faxa: 943 53 18 25

Zubizarreta instalazioak

Ubitarte, 5 behea
☎ 943 74 07 89/650 58 61 44



Elektrizitatea

Carranza

Lehen Aramar, orain Carranza
Morkaiko, 1
☎ 943 74 12 80

Azpeleta

San Frantzisko, 51
☎ 943 74 12 38

Joseba

Kilimon hiribidea, 1 (2. lokala)
Mendaro
☎ 659 934 964



Pinturak

Blok dekorazioa S.L.

Upaiz zaharra, 14 behea
☎ 943 74 15 52
☎ 606 43 11 19-20

Ku Kolorea

Urasandi kalea, 26 behea
☎ 943 74 88 43
☎ 660 52 25 87

